

BERRIGARA

99. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, uztailak 7



Piraguismoa Udako alternatiba



CITROËN ZX



CITROËN

ION AUTOAK

Urarte, 10. Tfnoak: 76 47 49 / 76 47 73 Faxa: 76 54 27



Hil honetan, ESKAITZA DISDIRATSUAK aurkituko dituzu gure modeloetan. Bisita gaitzazu eta proba itzazu 95ko CITROËN auto zoragarriak!!



CITROËN XANTIA

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

ELKAR ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tinoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

JARDUN Elkartea.
Masterreka, 13 Bergara.
Tinoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Eredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezar
Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien

Eredakzio kontseilua:

Gorka Elorza
Miguel Angel Elkoroberezar
Alex Labaien

Komikiak:

Bitor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.000 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Logo gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

XABIER LEGORBURU

Udaleko Gizarte Laguntzailea

- Mizpirualde Egoitzan denboraldi baterako programa martxan jarri duzue...

- Bai, zaharrak zaintzen dituzten familiei zuzenduta dago. Normalean zaharrak Erresidentzian betirako ingratzen dira baina, orain, programa honi esker, uztaile, abuztu eta irailean 15 egun edota hilabeterako ingratzeko aukera dago. Mizpirualden plaza libre dexente dago eta zaharregatik kanpora irtetzeko aukera ez dutenek programan parte hartu dezakete.

- Zein baldintza bete behar dira?

- 65 urtetik gorakoa, antzuolar, elgetar ala bergarra izatea eta etxera bueltatzeko konprometua eskatzen dira bakarrik. Gero gastu batzuk



ere badaude baina hori Diputazioa eta Udalaren dirulaguntzen arabera aldatu egiten da kasuz kasu.

- Nolako harrera izan du orainarte?

- Oso ona. Oporrak hartzeko gurasoei lotuta dauden seme-alabek atsedean hartzeko aukera daukate eta bestalde gurasoak ere gustora egon dira Erresidentzian.

"Udan 15 edota hilabeteko egonaldiak egin ahal izango dira Erresidentzian"

E S A N D U T E

"Nere ustez nekazaritza bakarra dago, ondo egiten dena hain zuzen ere. Gainontzekoak beste gauza bat izan daitezke baina ez dira nekazaritza. Guk egiten dugun edo egiten ahalegintzen garen nekazaritza biologikoak nekazaritza tradizionalak zituen baloreak berreskuratzea du helburu. Zoritxarrez galdu egin ditugu gurasoetatik seme-alabetara transmititzen ziren baloreak (lurrarekiko errespetoa tartean) edota Euskadin ziren landare eta beste gauza asko"

TOMAS LARRAÑAGA
Baserritarra
GIPUZKOAKO
HERRI IRRATIA

I T U R R I O N E T I K

Miguel Altuna eta Ipintza institutuek LOGSE Batxilergoa eskeiniko dute

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak datorren ikasturtean LOGSE Batxilergoa eskeintzeko baimena eman die Bergarako Ipintza eta Miguel Altuna institutuei. Aipatutako Batxilergoa BBBko 2. maila edota REM ikasketak burutu dituzten 16 urtetik gorako ikasleei zuzenduta dago. LOGSE Batxilergoaren barruan, Batxilergo Zientifikoa, Teknoljiko edota Humanistikoaren artean aukeratu ahal izango da eta ikasleek gehien komeni zaien *ibilbidea* egiteko aukera izango dute. Euskal Herri osoan 50 ikastetxek egin zuten LOGSE Batxilergoa edukitzeko eskakizuna eta 9 ikastetxek bakarrik jaso dute baietza.

"Jendeari ez zaio batere gustatzen txakurrendako planak egin ondoren txakurtegia beteta dagoela ikusteak"

AXEN GARITANO
Elurra
txakurtegiakoa
EL DIARIO
VASCO



ROB ROY

Ostirala: 22.30.
Larunbata: 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).

Zinea

▼▼ **Jessica Lange** (*Las cosas que nunca mueren*) eta **Liam Neeson** (*La lista de Schindler*) aktore ezagunek **Rob Roy** eskoziar eroiaren bizitzan oinarritutako filmea protagonizatu dute. **Michael Caton-Jones**en zuzendaritzapean, *Rob Roy*k XVIII. mendeko Eskozian egoera txarrenetan bizi zirenen alde eginiko borroka kontatzen zaigu. **John Hurt** (*Escándalo*) eta **Tim Rothen** (*Pulp fiction*) partaidetzarekin.

Deiak

▼ **Erakusketa.** Kirol Argazkien V. Lehiaketara aurkeztutako lanik onenak igandera arte Kultur Etxean ikusgai.

▼ **Mendi irteera.** Gorla Alpinok eta Pol-Polek uztailaren 16an Castrograndera egun osoko irteera iragarri dute. Irteera 7.30etan Frontoitik.

▼ **Akanpada.** Pol-Polek 14 urtetik gorakoentzat uztailaren 22, 23, 24 eta 25erako Picos de European akanpada antolatu du. Izenematea eta argibideak Pol-Polen astelehenetik ostegunera 19etatik 20.30etara (76 48 51 telefono zenbakia).

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean 7etan Seminarioko baxuetan.

▼ **Kirol argazkiak**

Kirol Argazkien V. Lehiaketan parte hartu duten argazki onenak igandera arte Kultur Etxeko erakusaretoan ikusi ahal izango dira. Guztira, 98 argazki aurkeztu ziren lehiaketara: koloretan Agustin Gurrutxaga bergararra izan zen irabazlea eta zuribeltzean Berangoko Javier Pedro Fernández. Herriko onenak Miren Leturia eta Benito Cantero izan dira. Sari banaketa bihar larunbata 7etan Kultur Etxean bertan egingo da. Alboko argazkian, Benito Canteroren "Cross" izenburuko lana.



Ogia

▼ **igandea 9:** Ogizun.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 7:** Estella.
- ▼ **Larunbata 8:** Mozos.
- ▼ **Igandea 9:** Mozos.
- ▼ **Astelehena 10:** Camacho.
- ▼ **Asteartea 11:** Puy.
- ▼ **Asteazkena 12:** Guallar.
- ▼ **Osteguna 13:** Estella.

**Aldoka
Maldoka**
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34

CAMACHO
**Drogeria
Usaindegia**
Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35

San Kristobal

Ostiraletik astelehenera jaiak San Kristobal auzoan

San Kristobal auzoko jaiak ospatuko dira gaur ostirala hasi eta astelehenera bitartean. Gaur, gaueko 10etan, ohizko pinuaren jartzea egingo da eta etxaflero jaurtike-tarekin eta kanpai hotsarekin jaiari hasiera eman-goa zaie. Ondoren Elorza trikitilari anaiek alaituta-ko txokolatada izango da.

Larunbatean gaueko 11etan hasi eta goizaldera arte Zabaleta eta Imanol-ekin dantzaldia iragarri da eta igandean, uztailak 9, eguerdiko 12etan Meza Nagusia, jarraian kotxeen bedeinkapena eta jubila-tuentzako luntxa. Eguerdiko ordubatean dantzari-eren eta Elorza anaiei saioa eta tartean umeen-dako jolasak izango dira.

Azkenik, astelehene-an, Meza Nagusia eguerdiko 12etan, meza ostein kotxeen bedeinkapena egingo da eta gaueko 10.30etan Maixa, Itziar eta Garbiñerekin dantzal-dia goizaldera arte.

Maiatzaren erdialdean ekin zion Jai Batzordeak jaiak antolatzeari eta ber-tako kidea den Jabier In-zak zera azaldu digu: "7-8 bat lagun izan gara jaiak antolatzeko lane-



San Pedro eta San Martzial jaien ostein San Kristobalek hartuko du testigua asteburuan.

tan eta aurrekontua zer-txobait jeisten abalegin-du gara aurten. Uste du-gu nabiko programa era-kargarrria osatu dugula, nabiz eta nabi genuen talde guztiak ekartzetik izan ez. Izan ere Goza-tegi anaiak ekartzea ere nabi genuen baina ez da posible izan. Hala

ere, ez dugu uste giroa faltako denik. Dena den, eguraldiarekin gorabe-hera haundia dago egu-notan eta eguraldi ona egitea bakarrik eskatu nabi genuke, jendeak bertara hurbiltzeko au-kerera izan dezan".

Tradizioari eutsiz, kotxeen bedeinkapena

egingo da igandean eta astelehenean, meza ostein. "Bai, jakingo duzue-nez, San Kristobal gida-rien patroia da eta kotxe gidari dexente etortzen da kotxea bedeinkatzera. Igandean etortzen dira gebienak, 200 bat kotxe guztira eta astelehenean, San Kristobal egunean, auzokoak, taxistak edota kamioi gidariak hurbil-tzen dira batipat. Ea ja-iak ondo pasatzeko giro ona egiten duen astebu-kaeran..." azaldu digu Ja-bier Inzak.

Kotxeen bedeinkapena igandean eta astelehenean egingo da

LAKET
gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA

AKORT
• Fotokopiak koloretan
• Publizitadedun kamisetak
• Oihal inprimaketak
San Lorentzo, 7 behea.
☎ 76 50 39

JAUJA KIROLAK
Irizar, 2
☎ 76 14 95

Atzo lez nazkatuta

Maiatzaren 28a heldu bezala joan zen, ustezko demokrazia honek herritarrei lau urtez behin gure herriaren gidaritza eramango duten horiek aukeratzeko okasio edo "pribilexu" hori eskainiz hain zuzen ere (gure botoa kutxan sartzen denean bukatzen baita gure herria zuzenduko duen pertsona horri ezer esateko aukera).

Goikoa esan ondoren ez naiz hasiko entzuteaz horren aspertuak gauden hautets emaitza horiek errepikatzen baina bai orde a gure herriko alkate jaun horri eta bere ezinbesteko sozio den EAri pare bat gauza gogorarazten:

1. Alde batetik gogorazazi nahi nioke Victorianori eta bere alderdikide guztiei ahoa betetzen zaiela demokrazia itxurazko honetaz hitzegitean, ez baitakite benetazko demokrazia partehartzailea zer den, ez baitakite -edo amnesia sartu baitzaie non-bait- itxura denez herri honetako bigarren indar dena gobernu batzordetik kanpo uztea herriaren % 33a isilaraztea dela, ekimen faxista hutsa dela eta bide horri jarraituz gero eta gobernu batzordea herri honetako Udaletan errepresentazioa duten alderdi guztiei zabaldu ezean konfrontazioa besterik ez duela aurkituko EAJ-PNVk.

Azkenik zuri galdera bat Victoriano: izango al duzu oraingo honetan ere orain dela lau urte bezala BERRIGARA aldizkariaren azalean agertu eta "Bergarar guztion alkate izan nahi dut" esaldi famatu bezain zure ahotan hutsal gertatzen den hori esateko azala? Bergarar gutxik izango genu-

keen azala hain zuzen ere, zeren idatzitako eta gero bete gabe utzitako esaldiak ez baitiitu inork ahazten.

2. Eta, azkenik, EAri zuen burua aberzale progresistatza duzuen horiei, zuek eman diozue baietza Victorianoren "progresismoari", zuek eman diozue baietza herri honen % 33a isilpean egoteari, zuek ezinbesteko laguntza eman diozue EAJ-PNVri beste lau urtetan herri honetan alkate Victoriano izan dezagun eta udaletxe hori herriarengandik gehiago urrun dezan/dezazuen.

Besterik gabe, eta honelako erabakiek niregan sortzen duten ezinegona, lotsa eta nazka gorde ezinik agurtzen naiz.

HERRITAR BAT
NAN: 15.397.120

Ikusi Makusi

BERRIGARAREN 197. alean, Gutunak sailean, Elkarriren Ikusi Makusi loteriaren aurkezpenari buruz Bergarako Egizan taldeak egin zituen adierazpenak direla eta Bergarako Elkarriren tailerrak zera adierazi nahi luke:

1. Elkarrik ez du uste, inondik inora ere, aurkezpen hartan emakumearen erabilerarik egin zenik.

2. Aurkezpen-ekitaldian aipatu emakume taldeaz gain, bi aurkezlek (gizonezkoa bat, emakumea bestea) eta bi bertsolarik (biak gizonezkoak) hartu zuten parte.

3. Elkarrik, beronek antolatzen dituen aurkezpen, tertulia eta ekitaldi anitzetan oso kontuan hartu izan du beti emakumeen zein gizonezkoen partaidetza ziurtatzea.

Azkenik, Elkarrik pozik hartuko ditu honelako ihardueratarako edonork aurkeztuz ditzakeen ideiak nahiz iradokizunak.

BERGARAKO ELKARRIEN TAILERRA

San Antonioko jaiak

San Antonioko jai batzordeak, Musika Eskolaren eskaerari erantzunaz, Musika Eskolak ez zuela batzorde honekin joan den hilaren 17an izandako tanboradan parte hartzeko konpromezurik hartu argi laga nahi luke, harreman eta konpromezua Eskolako zenbait partaidek euron kontura hartu zutela adieraziaz.

Era berean, San Antonioko jai batzordeak auzotarrei nahiz bertara etorritako jende guztiari beren partaidetza eta laguntza eskertu nahi lieke, berau datozen urteotan hobetzera eta jarraitzera animatzen duena.

SAN ANTONIOKO JAI BATZORDEA

Tiira biraka




Udalbatza osatzeko akta onartu zen Osoko Bilkuran

Tentsioa izan zen nagusi asteazkenean Udaletxeko Pleno Aretoan eginiko ez ohizko Plenon. Jende dexente bildu zen bertan eta alkatearen kontrako eta Gaztetxearen aldeko oihuak entzun ahal izan ziren batzar osoan zehar.

Lehenbizi, pasa den ekainaren 17an Udalbatza osatzeko egin zen bilkurako aktaren onarpena aztertu zen. Maite Aristegik (HB) Pleno haren amaieran esandakoak aktan jasotzeko eskatu zuen baina alkateak erantzun zion Plenoa ordurako bukatuta zegoela eta hitz haiek bileraz kanpokoak zirenez, ez zirela aktan jasotzekoak. Udaleko idazkariak argitu zuenez, "legalki ez dago bitz horiek aktan jasotzeko aukerarik". Botazioan HBk kontrako botoa eman zuen eta EAJk, Eak eta PSE-EEK aktari onarpena eman zioten. Boto esplikazioan Aristegik tripartitoaren planteamendua eta EAren jarrera kritikatu zituen.

Ondorengo puntuan, Plenoen maiztasuna botatu zen. Gobernu osatzen duten alderdiek Plenoak hiruhilean behin egitea proposatu zuten eta HBk datozen 4 urtetar-



Alkateak bere kontrako oihuak entzun zituen Plenon.

rako Udaletxearen funtzionamendurako proposamena zuela azaldu zuen. Gobernu Batzordearen proposamena aztertu zen eta HBk kontrako botoa eman zuen. Jarraian Maite Aristegik testo bat irakurri zuen. Bertan Gobernu Batzordean talde politiko guztiak egotea, Plenoak hilean behin egitea, afektaturiko kolektibo edo herritarrek hitzegiteko aukera izatea, edota informazio batzordeak irekiak izatea aldarrikatzen zen. Testua irakurri eta Gobernu Batzordearen portaera salatu eta gero HBko zinegotziek eta Pleno aretoan bildutako herritar dexentek alde egin zuten.

Plenoak jarraitu egin

zuen eta batzorde informatzaile iraunkorrak osatu ziren. Bestalde, hainbat organotan Udalak izango dituen ordezkariak izendatu ziren: Mankomunitatean, Javier Gabilondo, Alvaro Esparza eta Juan Mari Garitano; Deba Garaiko Garapen Ekonomikorako Ajentzia Komarkalean Alvaro Esparza; Gipuzkoako Ur Kontsorzioan Victoriano Gallastegi eta, azkenik, Mendi Nekazaritzan Victoriano Gallastegi.

Bestalde, alkateak ondoko alkateordeak izendatu zituen: Javier Gabilondo, Koldo Pereira, Nere Amaia Zabala, Juan Mari Garitano eta Alvaro Esparza. Seirak Gobernu Batzordean izango dira

◆ San Martzial

Txiki

Ohiturari jarraituz, igandean Musika Eskolak San Martzial Txiki Eguna ospatuko du. Gazteen Bandak alaitutako igoera goizeko 11etan hasiko da. Bazkal aurretik eta bazkal ostean, berriz, hainbat joku antolatuko dira.

◆ Helduentzako eskola

Bergarako Helduen Heziketarako Eskolak (HHI-EPA) irakurtzen eta idazten jakitea, kultura orokorra zabaltzea edota Eskola Graduatua lortzeko aukera eskeintzen du. Izen-ematea irailaren 1etik 30era izango da zabalik. Argibide gehiago 76 44 52 telefonon.

JAIOTAKOAK

Maite Alberdi Elkoroiribe

Ekainak 25

Lierni Azpeitia Iturbe

Ekainak 28

Julen Sánchez Osuna

Ekainak 28

HILDAKOAK

Felix Muruamendiaraz

Uztailak 1, 84 urte

Maria Teresa Gantxegi Olabarria

Uztailak 2, 88 urte

Pedro Seminario Garralda

Uztailak 3, 72 urte

Jesusa Azkarate Jauregi

Uztailak 3, 65 urte



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

◆ Selektibitateko emaitzak

Herriko ikasleek emaitza onak lortu dituzte selektibitateko azterketan. Ipintza Institututik aurkeztu ziren 64 ikasleetatik 5 ikaslek (D ereduko 3 eta A ereduko beste 2) ez zuten azterketa gainditu. Miguel Altuna Institututik 20 ikasle aurkeztu ziren eta guztiek gainditu zuten selektibitatea. Azkenik, Aranzadi Ikastolatik aurkeztutako 8 ikasleek ere proba gainditu zuten.

◆ Bedelkarren zozketa

Bedelkarrek igandean San Martzialen egindako zozketan, Nico Mengualek, Izaskun Irastorzak, Maria Luisa Sánchezek, Mari Karmen Otaolak, Edurne Osinagak, Gloria Arozenak, Esther Ibabek eta Iban Patok 5.000 pezeta bana irabazi zituzten.

◆ Bergara K.E.ren deia

Bergara K.E.k dei egiten die datorren denboraldian lehen mailako errejional futbol taldean jokatu nahi duten 19 urtetik 23 urtera bitarteko gazteei datorren asteen zehar 19.30etatik 21.30etara Ipintzan aurkezteko.

◆ Pintadak Udaletxean

Igande goizean Udaletzeko arkupeetako bi atean pintadak agertu ziren. Batean "Ayuntamiento kaka" irakur zitekeen eta bestean "Alkatea gizurtero". Pintadak erdiz borratzea lortu zuten udal enplegatuek baina ziurrenik atea berriz pintatu beharko dira.



Mahaietan toldoa jarri zuten koadrilek asmatu egin zuten igandean.

Kanpotik baino barrutik busti zen jendea San Martzialetan

Euriak ez zuen igandean herritarren jaigiroa apaldu

Jendeak espero baino eguraldi hobea egin zuen igandean San Martzialen eta, urtero bezala, herritar asko eta asko bildu ziren goizean goizetik San Martzialeko zelaietan. Ohizkoa denez, gurdi igoeraren ondoren, meza izan zen eta jarraian ohorezko aureskua dantzatu zen ermitaren ondoko zelaian. Bertsolarien saioaren aurretik, Kalyna dantzatalde ukrainarrak bildutakoen txalo zaparrada luzea jaso zuen eta txaloak areagotu egin ziren ukrainiarrek Ikurriñarekin ohorezko buelta eman zutenean.

Kantina eta bolatoki inguruan jende mordo biltzen ari zenean, koadrila ezberdinek beren bazkariak prestatzeari ekin zioten. Bestalde, ermitaren arkupeetan izan zen bazkari ofizialean, ukrainiarrez gain,

Mizpirualde Erresidentziako talde bat eta udal agintariak gonbidaturik zeuden. Herri Batasuneko zinegotziak ez ziren bazkarira aurkeztu.

Bazkalostean, 6ak inguruan, ekaitza izan zen San Martzialen eta jendeak orain urte gutxi gertatutakoa gogoratu zuen. Zorionez, ez zen hainbestearino izan baina San Martzialgo kanpa nahiko lokaztu zen. Eguraldiak bazkalosteko giroa piztu zuen eta erromerian ez zen herritarren animorik faltan bota. Gaueko 9ak aldera hasi zen jeitsiera ez zen beste urte batzutan bezain arrakastatsua gertatu, jendea biltaldetan gutxienez banatu baitzen. Beranduen iritsi zirenek musikoen presentzia faltan bota zuten. Bestalde, ez ziren falta izan balkoietatik ura botatzeko eskatu zutenak.

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3 Ibargarai, 8
☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73

*Kirola egiteko
behar den guztia*

BOLINTXO

Ibargarai, 10
☎ 76 38 32

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

Herriko 306 gaztetxo ari dira Kikaundiren udalekuetan

26 begirale eta 3 koordinatzailearen ardurapean

Astlehenean Kikaundi Ludotekak antolatutako udalekuak martxan jarri ziren. Aurten 3 urtetik 14 urtera bitarteko 306 gaztetxo ari dira parte hartzen udalekuetan, OHOk bigarren mailara bitartekoak Poligonoko Aranzadi Ikastolan eta gainontzekoak San Martin ikastetxean. Hemendik uztailearen 21era bitartean, goizez, neska-mutikoek irteerak, jolasak, eskulanak edota gaur ospatzekoa zen San Fermin egunarekin primeran pasatzeko au-

kera izango dute. Guztira 29 begirale eta 3 koordinatzaile ari dira hurrekin lanean. Gaztetxoak uztailean lagunartean primeran pasatzea izango da beraien lana.

Bestalde, irailetik aurrera, Ainhoa Arbelaitz eta Ane Laskurain osintxuarrek jestionatuko dute ludoteka zerbitzua, Seminarioan eta Osintxun. Datozen 3 urtetarako Ainhoak eta Anek 10 milioi inguruko proiektua aurkeztu zuten Udalak konbokatutako lehiaketan.



Gaztetxoak asteartean Kultur Etxean jolasean izan genituen.

◆ San Pedroko komertzianteen zozketa

San Pedroko dendariak antolatutako zozketan 24.886 zenbakia saritua izan da.

◆ 1937ko kintoak

1937ko kintoek beren anaiarteko eguna ospatuko dute datorren uztailearen 16an. Ordubatean meza izango da Monja Zaharretan eta ordubietan bazkaria Antxonin. Bertan parte hartzeko interesa duten guztiek 76 28 90 (Ignacio) telefono zenbakira deitu dezakete.

◆ Turismo bulegoa zabalik

Udaleko Turismo Bulegoak udako denboraldiari hasiera eman zion asteazkenean. Aste Santuan bezala, bertan Sonia Suberbiola Turismo teknikaria eta Kristina Romero Turismo ikaslea izango dira lanean, bisitariari beharrezko informazioa emateko prest. Turismo bulegoa irailaren 4ra arte egunero izango da zabalik, goizez 11.30etatik 13.30etara eta arratsaldez 4retatik 7etara. Egunero ordubeteko bi bisita gidatu antolatuko dira, bata 12.30etan eta bestea arratsaldeko 6etan. Informazioa jasotzeko interesatuek 77 91 28 telefono zenbakira deitu dezakete.

MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA



Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

BERGARA

Karrozeriak

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31



LASA

Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29

Mari Díez

Sobiet Batasunera joan zen gerrako umeetako bat

Mari Díez Sánchez bergarra gerra denboran Sobiet Batasunera joandako "gerrako umeetako" bat dugu. Igandean, San Martzialen, garai haiek gogoratzeko aukera izan zuen Kalyna dantzari ukrainarrekin batera.

- Mari, nola gogoratzzen dituzu Sobiet Batasunean igarotako urte haiek?

- Oso oroitzapen onak dauzkat. Espainiako Gurutze Gorriaren bitartez Eulogio nere anaia, Felipe Zuñiga gure lehengusua eta ni neu 1936an Bergaratik Bilbora atera ginen; 1937an Bilbotik Sobiet Batasunera 4 urte-tik 15 urtera bitarteko 1.500 haur inguru joan ginen "Habana" itsasuntzian, Le Havren (Frantzia) transbordo eginenez. Leningradora eraman gintuzten eta handik gutxira neskak eta mutilak banandu zituzten. Ni Crimean egon nintzen lehenbizi eta, ondoren, Sobiet Batasuneko Hezkuntza Ministerioak anai-arrebarik genuenoi, Jersumen, Odessa inguruan, batu gintuzten, nere ana-



Mari Díez Mizpirualde egoitzan bizi da. Larunbatean Kalyna-ko dantzari ukrainarrekin elkartu zen.

ia eta lehengusuarekin elkartuz.

- **Nolakoa zen orduko bizitza?**

- Akordatzen naiz ume espainolen etxean bizi ginela; guztira 100 bat izango ginen eta etxea oso polita zen, jardina haundi batekin. Guretzako egin zutena haur errusiarrengatik ere ez zuten egiten, benetan oso ondo portatu ziren eta orokorrean urte onak izan ziren. Udan, klaseak amaitu bezain laister,

Itsas Beltzaren ertzera joaten ginen, Eskadovskera, beste behin Odessa izan ginen... Hobeto egotea ezinezkoa zen eta esaten dudan guztia gutxi izango da ziurrenik.

- **Gogorra izango zen gurasoengandik urrun egotea...**

- Haurrak izatean ez ginen asko arduratzen. Gure ama Kataluina zegoen gure beste anai batekin eta askotan idazten zigun. Urtetan aurrera joan ahala gehiago ardu-

ratzen ginen etxetik urrun egoteaz. Gainera, gerratearekin urte gogorak ezagutu genituen. 40an Jersumetik Leningradoko gazte etxeetara alde egin nuen eta 1941eko ekainean gerra hasi zen. 42ko martxoan Leningradoko inguraketatik kamioietan alde egin ahal izan genuen izoztuta zegoen Ladoga lakutik eta benetan suerte handia izan genuen, jende mardoa bertan hil baitzuten gogoz. Oso gogorra zen



Barrenkale, 31

Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATGIA,
SELF-SERVICE-A

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

FERNANDEZ



Oihal puska
Oihalak

San Antonio, 3
☎ 76 22 93

Ibargarai, 2
☎ 76 53 22

ez genuen ez janaririk, ez argirik, ez kalefazorik... Caucasora alde egin nuen eta ordutik hiri askotan izan nintzen eta ia Sobiet Batasun osoa ezagutu nuen.

- "Haur" guztiak sakabanatuta zeundeten?

- Bai eta Sobiet Batasuneko Gobernuak espainol guztiak Moskun batzeko agindua eman zuen. 47ra arte nahiko ondo ibili ginen eta urte hartan, zorionez, rasionamendua kendu egin zuten. Ni Iliu-sim abiazio fabrika lan egiten hasi nintzen eta Gorbachov Espainiara etorri zenean ilusio handia egin zidan fabrika hartako abioi batean etorri zela ikusteak.


- Noiz bueltatu zinen hona?

- Ni eta anaia 56an itzuli ginen eta Torrunzan

(oraingo Torunsan lanean hasi nintzen). Baina bueltatzerakoan NANA ere ez ziguten eman; kartulina batean gure izen-abizenak (gurasoena ere ez ziren aipatzen) eta herri-tik irtezea nahi bagenuen poliziaren baimena behar genuela jasotzen zen. Ni, hura ikusita, 58an berriz bueltatu nintzen eta 1979an jubilatuta arte Moskun lan egin nuen. Orduan bueltatu egin nintzen eta ordutik nago hemen.

- Buelatzeko asmorik?

- Oso egoera txarrean daude orain baina gustatuko litzaidake bidaia bat egitea. Igandean emozionatu egin nintzen ukrainarren kantuak entzun eta beraiekin hitzegitean, pena eman baitzidan hango egoerak. Neskaita bat tek hemen loditu egin di-



Mari Díez, Felipe Zuñiga eta Eulogio Díez 1940 urtearen inguruan Jersumen ateratako argazki batean.

rela ere komentatu zidan; gustora geratuko lirateke hemen baina han dauzkate beren familiak... Oso gaizki bizi dira. Sobiet Batasuna zenean behintzat bazeukaten zer jana baina orain... Pentsa milioi bat rublok ez du ezer balio gaur egun... pena bat da. Nik errusoz hitzegi nuen

beraiekin eta oso jende jatorra iruditu zitzaidan.

- Eta nongoa sentitzen zara?

- Alde guztietakoa sentitzen naiz. Iñaki Lete zenak bergararra, errusiarra eta antzuolarra (nire gurasoak Burubiko baserrikoak baitziren) nintzela esaten zidan.

MODAKO BEGIRADAK



Ducci 95 Gilduma. D95 eredua. 6.750 pezafen

Ducci • Armani • Angaro • Dior • Vogue
Ferré • Zeiss • Vogart • Nina-Ricci • Reporter

Zatoz MULTIOPTICASera eta jar ezazu zure begirada modan. Ducci 95 bildumako diseinu berriekin, aurten zeu zara Top Modela.

**ZURE EGUZKITAKO
BETAURREKOAK
GRADUATZEN DITUGU**

90 egunetarako geroratutako ordainketa-sistema, errekar gurik gabea, gure kreditu-Txartel bereziarekin.



Jar ezazu zure begirada modan

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE

Ibargaray, 16 • BERGARA

J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA

ETA GAINERA: KAMISETA BAT OPARI!!

Elikadura

Kolesterola

- Zer da kolesterola?

- Bizitzeko beharrezko molekula bat, lipido estruktural bat. Kolesterolaren zelulekin gorputzarentzat beharrezkoak diren membranak edota hormonak egiten dira. Askotan exajeratu egiten da kolesterolaren inguruko guztia, jendea gehiegi arduratzen da horretaz. Pertsona arruntok egunean 500 mg. kolesterol hartu dezakegu (adibide bezala arraultza batek 300-360 mg. kolesterol inguru ditu).

Baina badago jendea egunero 3 arraultza jaten duena eta ez da ezer pasatzen. Kolesterolaren gaia oso erlatiboa da eta onena kasuz kasu aztertzea izango litzateke. Ez dago jeneralizatzerik.

- Kolesterol ezberdina al daude?

- Analisisietan gorputzak sortzen duen kolesterolaren neurria agertzen da eta ez da jendeak egiten duen janari on eta txarren arteko desberdintasuna egin behar. Baina bada kolesterol "ona" eta "txarra"ren arteko diferentzia. Kolesterol "ona" HDL izenekoa litzateke

(dentsitate altuko lipoproteinak), odoletik gibelera kanporatzen dena. Kolesterol txarra, berriz, LDL (dentsitate baxuko lipoproteinak) litzateke, gibeletik kanpora atera eta botatzen dena. Azken honekin atherosclerosis




BITTOR RODRIGUEZ
(Nutriologoa)

edota bihotzekoak izateko arriskua dago.

- Zein da kolesterola

"Kolesterolaren kontuan onena kasuz kasu aztertzea izango litzateke"



Dieta egoki batekin kolesterola ondo kontrolatu daiteke.

la zaintzeko metodorik onena?

- Lehen aipatu dizuedan analisia gutxienez urtean bi aldiz egitea gomendatuko nuke (jendelodiaren kasuan hileroko egitea ez legoke gaizki). Eta neurrien barruan egonez gero, ez dago zertan arduraturik.

Dena den, argaletan kolesterol arazoak gibelaren alterazioengatik ematen dira eta lodietan, berriz, janariagatik. Bi kasuetan (argaletan sendatzea nekezagoa da) dieta egoki bat jarraitzea da onena. Dietista batengana joatea komeni da eta froga batzuk egin eta galdera batzuei erantzun ondoren, dietistak zure gustuekin ondoen egokitzen den dieta aginduko dizu.

- Kolesterola jeisteko onena?

- Fruta, barazkiak, haragia jatekotan, grasarik gabekoa (oilaskoaren petxuga esate baterako), txerriaren lipidoak..., horiek jatea gomendatzen da.

Txerriak behiak baino grasa gehiago dauka baina daukan grasa hobea da. Ez dauka behiak beste kolesterol. Txerria oso lodi daudenei besterik ez diete debekatzen, bestela ona da. Kolesterolarekin arazoak edukiz gero, ohitura batzuk aldatzea nahikoa da. Kirola eginaz kolesterol ona igo egiten da.

**Zure
konfidantzako
denda**

LASAGABASTER

Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Bildu eta gorde

Bildumazaleak: material arraroen biltzaile

Txapak, garagardo botilak, botoiak, telefono txartelak..., era guztietako bildumak egiten dira. Asko dira bilduma bat egiten hasi eta bat baino gehiago egiten dituztenak. Gauzak gordetzen hasten dira eta konuratzerako bildumazale bihurtzen dira.



Bildumazaleen elkartekoak astean bitan elkartzen dira.

Zaletasunak adina izan daitezke bildumak: herriko jaietako programak, pipak, llaberoak, pegatinak, mapak, zine programak, loteria billeteak... gustokoen edozer gauza gordetzen du bildumazaleak.

100 edari lata

Izaro Aperribai edari latak gordetzen hasi zen, orain 100 bat ditu. "Nire asmoa ez zen bilduma-

zale izatea, kasualitatez hasi nintzen, lata bat edan eta gorde egin nuen, gero beste bat eta beste bat, apala batean bata bestearen gainean ditut". Edozein tokitan aurkitutako latak ditu, baina gustokoen Chicagoko lagun batek ekarri zion lata bat du: "EEBBetatik ekarri zidaten Coke latak bebarbada itxuraz ez du apartekorik, baina zapore berezia zuen, ez zen hemengo kolak beza-

lakoa (lata guztiak butsik ditut, barrukoa edanda) eta horregatik dut gustokoago".

Izarok U2 eta Beatles taldeen jarraitzailea izanik, euren disko guztiak, kamisetak, bideoak, liburuak... denetarik du. Besteak beste, Beatlesen 18 disko eta berak eginiko kamiseta bat ditu. "Latak bildumatzea polita da, baina horrelako bilduma bat egiteko pazientzia handia behar da; beti

ateratzen dira edari eta lata berriak, eta bilduma sekula ezin da amaitu, horregatik nabiago dut laten bilduma baino Beatlesena egitea".

Zineko esku programak

Mari Karmen Larrañagak seilu, domina eta seilu bildumak ditu; hala ere, horiek baino maiteago du zineko esku programen bilduma. 10 urte-

AGIRREBEÑA

**oinetakoak
arropa denda
lenzeria**

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

Usoa Pub



☎ 76 38 57
Irala, 1

MAHER

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

rekin hasi zen programak gordetzen. Bergarako Azi-ondo zineko programak ditu, Donostiako zineetakoak, Bilbokoak... guztira 2000ren bat desberdin. "Programak ez dira oraingoak bezalakoak, hau da, argazki konposizioa dutenak, baizik eta originalak pinturan eginiko programak dira".

50 urte dituzten programak ere gordeta ditu: "1939ko esku programak badituzte, baita 51n Bilbon estrenatu zen 'Lo que el viento se llevó' filmearen programa ere edo Marlene Dietrichen Angelena".

Zine programez gain, 400 bat artistaren kromoz osaturiko liburuxka ere badu.

"Bilduma egitea ez da materiala aurkitu eta gordetzea; erizpide baten arabera sailkatu behar da"

Gustatutakoa gorde

Maitere Bergara bildumazale amorratua da. "Txikitatik izan naiz dena gordetzekoa; zerbait gustatuz gero, gorde egiten nuen. Seme-alaben bataioko edo txikitako baserritar jantziak ere gordeta ditut. Poliki-poliki gero eta gauza gehiago pilatzen joan naiz eta bilduma ugari dut: llabe-roak, errosarioak, urteurrenetako dominak...".

Kärten bilduma ere egiten dute: biribilak, gai desberdinetako irudiak dituztenak (tarota, Arabako erromeriak, Donostiako danborrada, euskal jantziak, e.a.).

Nieves Goirizelaiak ere dena gordetzeko ohitura du. "Zerbait bota aurretik alde guztietatik begiratzen diot. Azkenean era guztietako gauzak gordetzen dituzu. Pegatinak, egutegiak, txartelak, postalak, fosilak... bildu-


ma asko dut. Posabasoen ere bai; mundu guztietakoak, materiale eta tamaina desberdinetakoak ditut, guztira 2.000tik gora".

Seilu eta diru bildumazaleen elkarte

Nievesek eta Maiterekin bilduma horietaz gain, seilu eta diru (txanpon zein billeteak) bildumak ere egiten dituzte, eta Seilu eta Diru-Bildumazaleen elkarteko partaide dira. 80 bazkidek osatzen dute eta izenak dioenez, seilu eta diru bildumak egiten dituzte. Elkartekideek, besteak beste, erakusketak antolatu, eta astean bi egunetan, astelehenetan eta ostegunetan, bilerak izaten dituzte.

Informazioa trukatu

Bileretan bildumak osatzeko laguntza ematen diote elkarri: norbaitentzako, seiluren bat, txanponen bat edo beste zerbait biltzen ari denarentzako moduko zerbait aurkituz gero, eman egiten diote, eta duten informazioaz ere hitzegiten dute; esaterako, atera edo



Iñaki Apeztegi: "Bilduma bat egiteko pazientzia handia behar da, sekula ez baita amaitzen".

PINTXO eta BOKADILLOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92



OILAGORRA

TABERNA

Barrenkale, 21 BERGARA



Mari karmen Larrañagak zineko 2.000ren bat esku-programa ditu.

erretiratu behar den txanpon/zigiluaz, baita aldizkarietan datorren informazioaz ere... "Ia herri guztietan daude bildumazaleen elkarteak eta oso garrantzitsuak dira materiala trukatzeko eta bata besteari laguntzeko".

Lan handia

Maiterek dioenez, bilduma egitea ez da bakarrik gauzak aurkitzea eta biltzea, bildutakoa txukun gorde behar da eta lan handia eskatzen du. "Zigiluak, adibidez, gaien arabera ere bilduma daitezke. Nik musika gaiari dagokion bilduma

dut. Lehenengo zigiluak lortu behar dira (atzerrikoak ere bai) eta ez da lan erraza, asko mugitu behar da. Gero, zigiluak lortutakoan gaia ataletan banatu (musikaren jatorria, instrumentuak, opera...) eta testuz jutzen da. Horretarako informazio ugari behar da eta liburua erabili behar dira. Beraz, bildumak eginez asko ikasten da. Bildumak egitea kultura da".

Nievesek dio bildumazaleek ez dutela asperetzeko astirik. "Bildumak egiten denbora asko pasatzen dugu, egindakoa behin eta berriz ikusten ere bai. Nire ustez ez da

Txanpon eta zigilu bildumez

- Bildumazaleek fundaz osaturiko karpitetan gordetzen dituzte zigiluak eta txanponak.
- Zigiluak alferrik ez galtzeko, noizean behin karpetak zabaldu egiten dira, haizea har dezaten.
- Txanpon eta zigilu bilduma egiten dutenek urtean ateratako guztiak gordetzen dituzte. Urteko txanponak 900 pezetan eskura daitezke, zigiluak 2.000 pezetagatik.
- Zilarrezko txanponak ez dituzte fundetan sartzen, denborarekin horitu egiten direlako
- Bildumazaleek ez dituzte kalean edo banketxeetan lortutako txanponak gordetzen beti arrastoren bat izaten dutelako. Casa de la monedatik zuzenean bidalitako txanponak gordetzen dituzte.
- Txanponak eta zigiluak sekula ez dituzte eskuz ikutzen, guanteekin eta pinza bereziekin erabiltzen dituzte.
- Numismatika eta filatelia dendetan ez ezik, aldizkarietan azaltzen diren iragarkien bidez ere lortzen dira zigilu eta txanponak.
- Zigilu eta txanponetan balorerik handiena ez dute zaharrenek izaten, tirada txikia izan duten piezek baizik. Esate baterako, "Franco en Canarias" zigilua bakarra da eta 250.000 pezeta balio du.
- Txanpon bildumazaleentzat balio handia dute txanpon akasdunek. Adibidez, "Castilla y Leon" hitzak dakartzan 25 pezetako batzuetan "y" falta da. Bildumazaleek horietako bategatik 60.000 pezeta ordaintzen dute.

depresioa izango duen bildumazalerik".

Benetako bildumazaleak

Nievesen eta Maitereren ustez, badira bildumazaleentzat lan egiten dutenak. "Inglaterrako erregina da zigilu bildumarik onena duena, baina lan guztia inork egiten dio, langileak ditu

bildumak egiteko; horrelako jende asko dagoen arren, gure ustez, hori ez da bildumazale izatea. Benetako bildumazaleak zigiluak edo dena delakoa berak aurkitu, lortu, ordenatu, sailkatu... dena berak egin behar du; zalelasuna izanez gero, bilduma eginda ikustean bezain ondo pasatzen da aurreko lan guztia egiten".

iletxo
ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS
Fleming Doktoa, 7 BERGARA
☎ 76 53 15

BEHEKO TABERNA
Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

IKUSI
ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK
Irizar, 2 ☎ 76 53 09

Bildumazalea zara? Zeren bilduma izatea gustatuko litzaizuke?



Maite Cot
15 urte, ikaslea

Lehen txikitan kromoak kolekzioak egiten nituen baina orain ez daukat afiziorik. Egitekotan, seiluena egingo nuke beharbada.



Jon Aranzabal
29 urte, langilea

Kotxeko kromoak gordetzen nituen lehen baina guztiz lagata daukat. Orain hastekotan filatelia aukeratuko nuke.




Bittor Gómez
24 urte, ikaslea

Ez dut inolako bildumarik. Lehen txikitan seiluak kolekzionatzen nituen baina laga egin nuen. Orain motorren kolekzio on bat izatea gustatuko litzaidake.



Itxaso Lazpiur
17 urte, ikaslea

Seiluak kolekzionatzen hasi nintzen baina laga egin nuen. Orain dirua, txanponak kolekzionatuko nituzke.



Angel Barroso
23 urte, ikaslea

Lehen kromoak gordetzen nituen baina aspaldi laga nuen. Orain gauza zaharrak, egunkarietako errekorreak, kontzertuetako sarrerak etab. gordetzen ditut.



Guadalupe García
37 urte, langilea

Ez, ez daukat ohiturarik. Orain tresna zaharrak, detailtxoak gordeko nituzke (molinilloak eta horrelakoak esate baterako).

Amet



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK

Berezano auzoa OÑATI

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

**ETXAGI
JATETXEA**


AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



Gastu militarrik

San Martzialetik San Ferminerako aste hontan, bakaziño girua aprobetxatuz, gai serixo samarra etorri jat gogora. la denon artian soluziñoren bat topatzen dotsaun.

Talde batzuk (Amnistia Internacional, Greenpeace eta Médicos sin fronteras) gerran edo gatazkan diharduten herrixei saldutako armak direla ta, argitasuna eta azalpenak eskatu dotse gobernuko presidentiai, legez askotan debekautu egonda be, izkutuan eitten dabelako, Top Secret-pian; beraz, eztago kontrolatzeik. Lehenengo armak bialdu bata bestia akabatzeiko eta gero laguntza eman, hori bai telebistak eraindako malko pila batek lagunduta.

Baña ez pentsau estatuko problema danik. Euskal Herrixan bertan be arazo haundixa daukau, bertan arma fabrika asko daualako, adibidez Star, Astra, Gabilondo..., eta komunikabidietan askotan aipatzen daben Gamesa (baietz hurrengo kontratua sinatzen dabenian ETBn atera eta zer siñatu daben ulertu ez). Bada garaixa industria hauek moldatzen hasteko, bide berrixak jorratzen hasteko, gizarte eta gizakiendako biharrezkuaguak diren gauzak eitten hasteko.

Militarismoaren beste adar hau ezta gazte idealista batzuen arazua bakarrik. Segidukou insumisiñua aurrera eruatzen (aprobetxatukot besarkada bat bialtzeko preso daren guztiei) baña besterik ezpada datutxo bat dana hobeto ulertzeko: estatuko 1995eko aurrekontuetan gastu militarra bilioi t'erdikua da, hezkuntza, kultura, nekazaritza eta arrantza batuta baiño haundixaua. Beraz, garbi dao danok daukagula zer esan ta zer egin. Zergatik ez objeziño fiskala?

Asis IRIONDO



UEUko kongresua

Bada hau gai berberari buruz idazten dudan bigarren aldia. Baina joan den egunean lagun batekin hitzegiten, Udako Euskal Unibertsitatea aipatu nion eta uztailean antolatzen dituen ikastaroak, eta berak UPV-EHUK antolatzen dituenak direla uste. UEU eta EHUKo udako ikastaroak berdinak omen batzuentzat.

Ez dira ba berdinak. UEUren sorrera arrazoia, EHU bezalako unibertsitateetan euskaldunak baztertuta egotean datza. Horregatik, eta euskararen egoera normalizatzeko bidean, bereziki unibertsitate-arloan, eta euskaldunen beharrei erantzun nahian sorturiko erakundea dugu: euskara eta unibertsitatea hurbiltzeko, Euskal Unibertsitatea sortzeko, alegia.

UEUren hastapenetik hona, baina, eman da hurbilketa hori, nahiz eta apala izan: Euskal Herrian dauden unibertsitateetan (bost orotara), 3.000 ikasle inguru dago eta 700 bat euskal hiztunak direnak horien artean.

Unibertsitatea/euskera harremana eman den arren, esan bezala oso xumea da oraindik, eta hau guztia kontutan izanda, UEUK kongresu bat egin zuen apirillean: xedea, orainarte egindakoen eta egitekoen azterketa bideratzea eta bere etorkizunerako helburuak eta lan-ildo nagusiak finkatzea.

Iparra, hala ere, eta orain arte bezala, Euskal Unibertsitatea sortzea. Baina hau ez da bakarrik egiteko lana.

Monika BELASTEGI

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

Goierri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50




■ **Trikiti Eskolako en afaria**

Aurreko ostiralean **Jardunek** antolatutako Trikiti Eskolan parte hartu duten ikasleek ikas-turteari amaiera eman zioten **Artatse** elkarte-an egindako afariarekin. Irailetik hona 50 bat lagun izan dira **Iosu Zeziaga** eta **Ritxar Cuevas** irakasleekin astero astero Kartzela Zaharrean trikitia ikasten eta maila ona lortu dutela argi utzi zuten ostiralean. Afal aurretik egitekoa zen kalejira bertan behera geratu zen eguraldi txarragatik baina ikasleek hainbat pieza eskeini zituzten Arrano aurrean eta kalean zebilen jendeak eskertu egin zuen ikasleek giroa piztea. Ondoren, primeran afaldu

eta gero, ikasleek soinua eta panderoa hartu eta Artatsen bertan emanalditxo bat inprobisatu zuten. Irakasleek nota ona jarriko zietela pentsatzen dugu. Ea udan urtean zehar ikasitakoari eusten dioten...

■ **Esperientzia polita**

Esperientzia polita bizi izan dute **Antzuolako Herri Ikastetxean** bertako ikasle eta irakasleek eta haurren gurasoek. Hain zuzen ere, Irakasle-goaren Prestakuntzarako Plangintza Trinkoa gauzatzen ari zen orduetan, ostegun goizetan, guraso eta herriko boluntarioz osatutako talde bat (25 lagun) lehenengo mailatik zortzigarren mailarainoko haurrekin lanean aritu da kurtsu osoan zehar. Udalak dibujo irakasle bat eta berogailu eguzkitiarraren instalakuntza ordaindu ditu eta Jaurlaritzako Hezkuntza sailak 150.000 pza.ko dirulaguntza eman du. Kurtsu guztietako haurrek era guztietako eskulanak egiteko aukera izan dute, hala nola, tela bordatu, kojina egin, txotxongiloak egin, kaxak dekoratu... Guztiak aipagarriak, baina azpimarragarriena 8. mailako talde batek egin duen berogailu eta labe eguzkitiarra (aldameneko argazkia). Hauetako lan asko saldu egin dira eta batutako dirua Hirugarren Munduari laguntzeko izan da.



Antzuolako Herri Eskolako haurrek egin duten berogailu eguzkitiarra.

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE



■ **Argazkigintza trukoak ikasten**

Argazkigintzarako zale-tasuna haundia da Bergaran, ikusi besterik ez dago herrian antolatzen diren argazki lehiaketa, rallye edota ikastaro mordoak eta herriko argazkilariek han eta hemen jasotzen dituzten sariak. Egun hauetan, ekainaren 12tik 22ra hain zuzen ere, JARDUN-

ek antolatutako argazki ikastaroan 9 lagun (goiko argazkian) aritu dira. Bertan, argazki kamara eta objektibo mota ezberdinak nola erabili erakusten aritu dira **Agustin Gurrutxaga, Angel Eguren** eta **Jose Alberto Eguren**, Pol-Pol Argazki taldeko kideak. Zabalotegiko lokalean teoria ikasi ondoren, hainbat praktika egin dituzte kalean eta argazki politikak atera omen dituzte gainera.

■ **Gotikoa aztertzen**

Bilboko Zooming produktora-kokideak ETBrako egiten aritu diren euskal eliza gotikoei buruzko erreportairako irudiak hartzen izan dira egunotan Bergaran. Zoomingekoek Euskal Herriko 27 eliza aztertuko dituzte aipatutako erreportaian eta Bergaran Santa Marina eta San Pedroko irudiak hartu dituzte. Gentza Belaustegigoitia taldeko adituaren hitzetan, "eliza hauek XVI. mendekoak dira eta eliza kolumnarioak edo eliza saloiak bezala ezagutzen dira. XIII. eta XIV. mendeetan Alemanian egiten ziren (Kirchen-Hallen) eta oso harrera ona izan zuten. Bergarak eliza horien, euskal gotikoaren arketipo oso interesgarriak ditu".



Argazkian, ezkerretik eskumara, Asier Agirregomezkorta (operadorea), Gentza Belaustegigoitia, Eduardo Llorente (errealizadorea) eta Aitor Galbarriertu (kamara).

Zertan dihardute ba?



Enrique Nieto 29 urteko bergararrak kategoria nazionaleko futbol entrenatzaile tituloa lortu du. Joan den irailaren 2tik ekainaren 12ra bitartean, larunbat eta astelehenetan, 400 orduko ikastaroa burutu du Donostian eta azkenean futboleko edozein kategoritan entrenatu ahal izateko beharrezkoa den tituloa eskuratu du. Aurkeztu ziren 32 lagunetatik, 9k bakarrik lortu dute titulu, tartean Jesus Mari Zamora eta Javier Zubillaga Realeko jokalaririk ohiek. Enrique Nietoren hitzetan, "esperientzia polita izan da eta uste dut titulu hau lortzen duen lehen bergararra naizela. Alde borretatik ere erreto bat zen niretzat". Datorren denboraldian Nietok Bergarako 2. mailako kadete taldea zuzenduko du.

LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak, esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94



umelaga
JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

Ana Orgaz

Egoitzan eskulanak erakusten ditu, baina pertsona jantzi, osatu eta aberastearekin zerikusia duen oro lantzen du. Parapsikologia, astrologia, astronomia, lurra, artea... pertsona aberasteko erabiltzen ditu.

- Zenbat urte?
- 50, oso zenbaki polita da.
- Zein eskulan egiten duzu?
- Batez ere oihalak eta zeramika.
- Zein duzu gustokoen?
- Zeramika, kolorez eta formaz ez delako aldatzen.
- Zergatik eskulanak?
- Sormena garatu eta bizitzarako ikuspuntu berriak ematen dituztelako.
- Eskultura bat?
- Eskultura bizia, kaleko edozein pertsona.
- Galerietara joaten zara?
- Kalea da galeriarik onena.
- Lanak saltzen dituzu?
- Ez, lehiaketetan ere ez dut parte hartzen.
- Zein helbururekin egiten duzu lan?



"20 urte daramat eskulanak egin eta erakusten. Irakasle lanetan jardun arren, bizitzak eskeintzen duen guztiaren ikasle naiz. Eskultura biziak ditut gustokoen, pinturarik ederrena, berriz, bere bizitza koloreztatzen duenak margotzen du"

- Eskulanak, klaseetan eta jendearen bidez, nire bizitza aberasteko tresna bat baino ez dira.

- Pintore bat?
- Norberaren bizimodua koloreztatzen duen edonor.
- Non jarriko zenuke artelan milioidun bat?
- Saldu eta dirua funtzio sozialetan erabiliko nuke.
- Ikasle ala irakasle lanetan gustorago?
- Irakastea nahiago, niri balio didana erakusten dut.
- Zertan ematen duzu denbora gehien?
- Bizitzen, bizitzea gero eta gehiago baloratzen dut.
- Ilusiorik gehien zein erregalok egin dizu?
- Semea izateak.
- Hotela ala kanpina?
- Kanpina, udan etxetik kanpo egon beharra dut.
- Izarpean lo egitea gustoko?
- Bai, astronomia oso interesgarria da.
- Zer gorrotatzen duzu?
- Hipokresia politikoa.
- Bizio bat.
- Almendradun txokolatea.
- Poltsan beti erabiltzen duzuna.
- Ezpainetako eta begietako arkatza.

Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILIPS



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK.
HI-FI EKIPOAK.
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da Fuengirolan eta apartamentua Biarritzen. ☎ 76 05 37 (gauzez).

Pisua salgai Antzuolan. ☎ 76 60 39.

Garaje bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

Baserría salgai Elosun. ☎ 76 57 24.

Garajea alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Pisua alokatzen da Deban udan. ☎ 76 58 91 (gauzez).

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Pisua salgai Azkarruntzen (merke). ☎ 81 36 58.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

Garajea alokatzen da San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

Etxea salgai Aranerrekan. ☎ 76 56 75.

Garajea salgai Burdiñaten. 3 milioi. ☎ 76 31 79.

Pisua alokatzen da San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Pisua salgai Zarautzen. ☎ 78 19 50.

DENETARIK

Denda karroa salgai. ☎ 76 21 96.

Kawasaki ZXR 750 motor bat salgai. ☎ 76 42 47.

Yamaha XT-E Trail motorra salgai. ☎ 76 03 40.

Mobilette Cady motorra salgai. ☎ 76 13 11 (gauzez).

Motor bat salgai. ☎ 76 07 74.

Karabana bat salgai (berrri-berria). ☎ 76 10 09.

Pertsona bat behar da pisua konpartitzeko. ☎ 76 03 48/ 76 06 87.

Haurrendako **bi** bizikleta eta **moto txiki** bat salgai. ☎ 76 15 76.

Pisua alokairuan hartu edo konpartituko nuke. ☎ 76 22 77 (gauzez).

Opel Kadett kotxea salgai. ☎ 86 14 16 (Nekane).

"**Benimar**" karabana oso egoera onean saltzen dut. ☎ 76 17 50 (goizez, astartetik larunbatera).

Seat Fura (SS-F) kotxea salgai. IAT pasatuta eta ondo zainduta. ☎ 76 10 39.

Macintosh LC III bat ia berria eta inpresora salgai. Merke. ☎ 76 39 36.

Renault 5 GTS (SS-AH) kotxea egoera onean salgai. 500.000 pezeta. ☎ 76 34 90.

LANA

OHO eta BBBko klaseak uztailean. ☎ 76 42 08 (Nere).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Frantsez eta ingeles klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

OHOTik UB Ira bitarteko zientzia klaseak. Marrazketa ere bai. ☎ 76 24 31.

Kamarera lan egingo nuke. ☎ 76 16 83 (Edurne).

Etxeak garbitu edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 10 00.

Matematika eta Zientziatako klaseak. ☎ 76 06 50.

Esperientziadun neska batek ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 28 16 (Maidar).

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Abuztuan (1-15) Cambrilsen etxeke lanak egin eta haurrak zaintzeko neska bat behar da. ☎ 76 57 32.

Hezitzaile tekniko batek zaharrak edo haur atzeratuak zaintzen ditu. ☎ 76 38 99.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.


OHO eta zientziatako klaseak. ☎ 76 03 72 (Nerea).

OHO eta ingeles klaseak uztailean (goizez). ☎ 76 17 18 (Jesus).

Pianoko klaseak ematen ditut. ☎ 76 50 59 (Mikel).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 46 14 (Carmen).

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.



TOSHARE
☎ 76 29 70

SANTOS
IRRATI-TB

ELEKTRAGAILUAK
SUKALDE ALTZARIAK
ARGIZTAPENA
ANTENA KOLEKTIBOAK
TB, BIDEO ETA SOINU
APARAILUEN
KONPONKETA

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK



San Pedro, 9. Teléfono. 761051

R.S.I. 209374-SS

BERGARA

BONOFOTOA



Olatz Larrañaga

Olatz Larrañagak jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu baitu. Azken bi urteetan hain aldaketa nabarmena izan duen baserri bat agertzen zen argazkian eta baserri horren izena galdetzen genizuen. Erantzuna: **Azkatzazu Gainekoa** baserria. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Olatz Larrañagari** eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein da ermita honen izena eta zein fruta klase dauka eskuan bertako ama birjinaren irudiak?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

IPINTZAKO



futbol txapelketa

A multzoa	Punt.	Jok.	Irab.	Berd.	Gald.	G.A.	G.K.
1. A ZE FLAXA	8	4	4	0	0	13	2
2. ANGIOZAR	5	4	2	1	1	10	5
3. XURRUPAK	4	4	2	0	2	5	9
4. AMILOTX	2	4	1	1	2	14	7
5. NEKROFILIKOS	0	4	0	0	4	1	20

B multzoa	Punt.	Jok.	Irab.	Berd.	Gald.	G.A.	G.K.
1. MONGATXURRA	8	4	4	0	0	20	0
2. ARLOTEAK	5	4	2	1	1	21	6
3. SHAKTALE	5	4	2	1	1	6	4
4. CAMPEONES II	2	4	1	0	3	4	21
5. LA JUVE	0	4	0	0	4	2	18

C multzoa	Punt.	Jok.	Irab.	Berd.	Gald.	G.A.	G.K.
1. BILBURBAREK	10	6	5	0	1	26	8
2. OGIZUN	7	6	4	1	1	18	20
3. PAOK	4	6	2	0	4	13	18
4. ALTOS PORNOS	3	6	1	1	4	12	20



Nekrofilikos



La Juve

▼ komentarioa

Gaur bertan hasiko dira jokatzen Ipintza futbol txapelketako final laurdenak eta bertan orain arte urtero finalera heldu den Amilotx taldea ez da izango. Talde honi Xurruaren aurkako partiduan 4 federaturekin jokatzeagatik partidua galdutzat eman eta puntu bat kendu diete antolatzaileek. Ez da inoren gustokoa txapelketa batetik horrela kanporatua izatea, baina arauak berdinak izan behar dute bai haundi eta bai txikiak eta Amilotxekoekin egin duten hutsa onartezina izan da. Bestalde partiduei dagokienez, taldeetako lehen sailkatuak faborito nagusiak dira, baina ezin da alde batera utzi partidu bakar batera edozein emaitza izan daitekeela. Azkenik, ea partiduak ordurako hasten diren, orain arteko partiduak berandu hasi baitira eta ia argi barik jokatu izan dira partidu batzuen azken minutuak.

▼ emaitzak

Nekrofilikos-Xurruapak	0-1
Amilotx-Angiozar	2-2
La Juve-Arloteak	0-8
Shaktale-Mongatxurra	0-3
Paok-Bildurbarek	1-2
Ogizun-Altos Pornos	3-1
Xurruapak-Amilotx	1-0
A Ze Flaxa-Nekrofilikos	1-0
Arloteak-Shaktale	1-1
Campeones II-La Juve	3-2


▼ final laurdenak

OSTIRALA 7
19.30: A Ze Flaxa-Shaktale
20.30: Mongatxurra-Ogizun
ASTELEHENA 4
19.30: Bildurbarek-Xurruapak
20.30: Angiozar-Arloteak


▼ golegileak

1. J.L. Etxaniz (Bildurb.) 14 gol
2. F. Salinero (Ogizun) 13
3. Ivan Etxeberria (Mongatx.) 9
4. Igor Larrañaga (Arloteak) 6
5. Josu Arana (Bildurbarek) 5

Zortzi talde onenak txapelaren bila



Komentarioa




Galtzeko arriskuan dauden jokoak

Olinpiadetatik gehien gustatzen zaidana herri kirolak dira. Joan zen urtean 40 kiloko harria ekarri nuen eta aurten 80 kiloko harria mutilentzat eta 40 kilokoa

emakumezkoentzat ekarri dut. Bestela, oso ondo daude Olinpiadak, jendeak urte osoan zehar egiten ez dituen ekintzak antolatzen baitira. Lehengo zaharrek egiten zuten, toka, boloak etab... eta galtzeko arriskuan daude. Faboritorik? Xurrupak eta Altos Pornos taldeak ikusten ditut, halere guk ere lan ona egingo dugu.

IÑIGO ALMORZA
KIB TALDEKOA



Umore ona eta jai giroa dira nagusi Herri Olinpiadetan.

Hasi da lehia: 12 talde nor baino nor

Olinpiadetako lehen astean sailkapenari begiratu bat emanaz Basherry Kork eta Soropotroak taldeak nabarmendu dira aurretik. Atzean, berriz, Altos Pornos eta Aksi For Ever daude, ez baitira orain arte jokaturako jokuetara azaldu. Ea datorren asteko frogetan parte hartzen duten. Bestalde, antolatzaileek Cabestros Drim Tim taldearekin arazoak izan dituzte, izan ere megafoniatik Cabestros esaten diete eta noski hori haserretzekoa da. Aitonetan jokaturako jokuetan, berriz, bolotan maisu bikainak izan zituzten gazteek, Jubilatuetako maisuen debaldeko klaseak entzun baitzituzten. Azkenik, antolatzaileek KIB taldean harria jasotzen Saralegiren ordezkoa izango dena ikusteko aukera izan dutela adierazi digute. Laster Euskal Herriko plaza nagusietan ikusiko omen dugu...

Sailkapena

1. BASHERRI KORK 315
2. SOROPOTROAK 285
3. KIB 260
4. XURRUPAK 250
5. CHEER LEADERS 245
6. TXARRENAK 240
7. KABESTROS D.T. 220
8. IN THE GARDEN 140
9. MONGATXURRA 120
10. SHAKTALE 25
11. AKSI FOR EVER 0
12. ALTOS PORNOS 0

Egitaraua

ASTELEHENA, 10
ERLOJUAREN AURKAKO
TALDEKAKO TXIRRINDULARI
LASTERKETA.
SAN MARTIN PLAZAN.

ASTEARTEA, 11
MAHAI JOKUAK.
SAN MARTIN PLAZAN.

ASTEAZKENA, 12
HOCKEY-PATINAK.
PAÑUELITO.
SEMINARIOAN.

OSTEGUNA, 13
BOLEIBOLA.
BELA JOKUA.
ELEMENTAL BERRIAN.

OSTIRALA, 14
HERRI KIROLAK.
SAN MARTIN PLAZAN

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

**Kirola egiteko
behar den guztia**

BOLINTXO

Ibargarai, 10
☎ 76 38 32

IGARO

✓ Kosmetika eta oparigaiak

✓ Eder gela

✓ Bio Solariuma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

HERRIKO PELOTARIAK DONOSTIARA

Igandean herriko pelotariak Donostiako Antiguu auzoan jokatu den torneoan izango dira. Jubeniletan Gutierrezek Aranzeta elgetarrarekin osatuko du bikotea eta 23 urtez azpikoentzako mailan, berriz, Muruk eta Oruesagastik jokatu dute. Bestalde, asteartean arratsaldeko 7etan Oñatiko torneoan Martin eta Alberdi jubentzek parte hartuko dute.

AGURTZANE CRESPOK ZILARREZKO DOMINA

Agurtzane Crespo igerilariak zilarrezko domina eskuratu zuen joan zen astean Donostian jokatuako Euskadiko junior mailako txapelketan. Crespok 200m tximeleta proban eskuratu zuen domina eta horrez gain 100m eta 400m estilotan ere igeri egin zuen. Bestalde larunbat eta igandean Tolosako Euskadiko infantil mailako txapelketan izango dira Eneritz Muguruza, Amaia Lazpiur, Eider Balzategi eta Eli Alberdi igerilariak. 4 igerilarietarik hainbat frogatan parte hartuko dute eta errelebotan lan bikaina egiteko itxaropena dute Bergara Igeri Elkarteko kideek. Ea sariren eskuratzen duten.

Iñaki Gallastegi Piraguismoarekin gozatuz

Igandean Beti Busti herriko piraguismo elkar-teko kideak Saturraraneetik Debaraino egiten den piraguismo trabesian. Bertan izango da Iñaki Gallastegi, elkar-teko sortzailetariko bat eta dagoeneko 10 urte daramatzana mundu horretan.

- Zer egingo duzue igandean?

- Saturraraneetik Debaraino trabesia bat egingo dugu eta horretarako 45 minutuko denbora dugu. Ez da lehiaketarik izango, helburua egun pasa egitea eta kirola ezagutaraztea baita. Ondoren Debako hondartzan hainbat ikuskizun burutuko ditugu hondartza girotzeko. Surfa Kayakarekin eta horrelako ekintzak izango dira ikusgai.

- Bergaran ez dauka gu ez errekarik ezta urtegirik ere piraguan ibiltzeko eta orduan zela moldatzen zarete urtean zehar?

- Beti Bustikhainbat ekintza antolatzen ditu. Gaztetxoak lehiaketetan aritzen dira eta asteburutan irteerak egiten ditugu. Gazteek Euskadiko txapelketetan parte hartu izan dute K1 frogetan eta emaitza politak lortu ditugu. Entrenamenduak Albina eta Legutioko urtegietan egiten ditugu eta ur bizietan aritzeko kanpoko udal igerilekuetan neguan zehar barra batzuk jartzen ditugu teknika ikasteko eta asteburuetan irteerak antolatzen ditugu ur bizietara.

- Piraguismoan aritzeko fisikoki ezaugarri berezirik behar al da?


- Zailena hasierakoa da, piragua menperatu arte. Horretarako jarraian 4 hilabete inguru ibili behar da eta menperatzen duzunean gustoa hartzen diozu. Teknika fisikoa baino garrantzitsuagoa da. Aurten asteburuero egin ditugu irteerak, larunbat arratsaldetan inguruko urtegi eta hondartzetara joan izan gara eta igande goizetan, aldiz, erreketara jo dugu.

- Zer da zailagoa urtegi ala errekan ibiltzea?

- Hori gustuen arabera da. Niretzat zailagoa da urtegi ibiltzea fisikoki gehiago eskatzen baitu. Ur bizietan esfortzua go-gorraga da baina era berean motzagoa.

- Norbaitek piraguismoan hasi nahi badu, zer egin behar du?

- Udan ikastaroak antolatzen ditugu, baina gehiago sakondu nahi duenak klubekin harremanetan jartzea du egokiena.



"Urtegi ibiltzea ur bizietan aritzea baino zailagoa da niretzat".

"Igandeko trabesian ez da lehiaketarik izango, kirola ezagutzera ematea da gure asmoa"



Ezta Tourra, baina...

O ñ dala 30 urte eta, afiziño haundixa sortzen zeban ziklokrosak. Gaur Bergaran, onenen artian Iñigo Igartua dauan letxe, lehen Zumarragako Talami-illo eta Burgosko Mendijur zeren. Erretratuko, Bergarako eta Antzuolako, talde hau Azpeittiko Ländeta auzora joan zan orduango karrera bat ikustera.

Ezkerretik eskumara:

Iñaki Lete, Luis Larrañaga, Faustino Lazkano, Juan Karlos Lazkano (umia), Anttoni Txintxurreta, Milagros Agirre, Beatriz Lazkano.

Felipe Iñarra

Erretratua: Anttoni Txintxurreta

Atseden zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

Taberna Kafetegia

EHIZTARIAK

LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta, 26 BERGARA

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA

ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZA

Kruz Gallastegi, 2 behea

☎ 76 23 48

Udako aukerarik onenak

Oporretako ekipaia
gertatzen hasi zaitezten
**HONA HEMEN GURE
BEHERAPENAK!!**

Produktu-aukera
zabala, seriotasuna eta
zerbitzu ezin hobea
eskaintzen dizkizugu.

Denda hauetan
punta-puntako markak
aurkituko dituzu.

Bisita gaitzazu!!



ZAPATAK

POLTSAK

OSAGARRIAK

Espaloia, 4 BERGARA
☎ 76 01 18

IGARZA

MERTZERIA • LENTZERIA

Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

MUJIKA

Jantzidenda

Barrenkale, 1 ☎ 76 29 91

LENTZERIA • KORTSETEGIA • BAINU JANTZIAK

Nerea

Simon Arrieta Plaza, 1 ☎ 76 19 52 BERGARA

Barrenkale, 24 ☎ 76 10 16

Zubikua

JANTZIDENDA

JAKINA



BAINUAK



ZERAMIKAK



SUKALDEAK

Zure sukaldea edo bainua berritzeko eta amueblatzeko
behar duzun guztia eskainiko dizun
DENDA ESPEZIALIZATUA.

Proiekturik exijenteenari ere aurre egiteko gai den
TALDE PROFESIONALA dugu.

San Lorentzo
Poligono Industrialia.
Amilaga, 10 behea.
BERGARA

JAKINA

Telefona: 76 03
Faxa: 76 02